

B

BARREN

Berriz ere Ondarroara bizikletaz



TXIRRISTAKA TABERNA



ONDO
PASA
JAIXAK!!!



Folklore jaialdia

Urtero bezala, hemen dugu Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdia. Aurten ere, Haritz Euskal Dantzari Taldeko kideok ilusio guztiarekin ari gara ekitaldi hori prestatzen. Badirudi atzo hasi ginela jaialdi horrekin, baina jada 23 urte pasa dira lehen aldiz Ikastolako frontoian egin zenetik. Urte hauetan guztietan, dantzari asko pasatu dira oholtza gainetik eta denak ahalegindu dira gure herriari, Elgoibarri, gure dantzek eta gure folkloreak duten aberastasuna erakusten. Urteak pasa ahala, gauza asko aldatu dira, baina gure nahia eta gogoia ez. Guretzat uztaila oso beroa izaten da, entsegu asko, ordu asko, izerdi asko, haserreak, baina hori dena bukatu egiten da eszenatokira igotzen garenean.

Aurtengoa 23. folklore jaialdia dugu, eta, jaialdi horren bidez, nazioarteko hainbat tokitako folklorea erakutsi nahi dugu, eta beste txokoetako dantzak ezagutarazi. Talde batzuk ikusgarriagoak dira beste batzuk baino. Hala ere, denek euren herriko dantzak erakusten dizkigute, ahal duten goxoan.

Ni ohikoa baino beranduago hasi nintzen dantzako munduan. Plazan geratzen nintzen dantzariak ikusten, lagunek buelta bat ematen zuten bitartean, geroago eurekin elkartzeko. Nire ibilbide horretan, momentu onak eta txarrak bizi izan ditut, baina onekin geratzen naiz.

Aukera asko eman dizkit dantzak: jende asko ezagutu, lagun asko egin, beste mundu bat ikusi, toki asko bisitatu, Elgoibarko eta Euskal Herriko ordezkari moduan Euskal Herriko antzoki onenetan dantzatu...

Momentu on asko ditut gogoan, Estatu Batuetan egon nintzenekoa, Trinitateetan Kaixarranka dantzatu nuenekoa –jendeak nola animatzen

zuen-,
San Bartolomeetako
Soka dantza...

Nola ez aipatu
nahi ditut, dantza
eskolako nire ikasleak,
urte guztia pasatzen dut
eurekin ahal dudana guztia
erakusten, txapelketetan parte
hartzen eta lortzen dituzten
emaitzekin pozez betetzen.

Eskerrik asko Elgoibarko
herriari, zuen txaloengatik,
aurten ere berri hor duzue zita
folkloreakin, uztailaren 24an,
kiroldegian.

Jon Lizarralde



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituzte gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Folklore jaialdiaren bidez, nazioarteko hainbat tokitako folklorea erakutsi nahi dugu, eta beste txoko batzuetako dantzak ezagutarazi”

**BIDALI ZURE
OPORRETAKO ERRETRATUAK
ETA IRAILEAN ARGITARATUKO DITUGU**



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

 **ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA**

ONDARROAKO ITZULIA

AURTEN BERRITZEKO ASMOZ

Aspaldi laga zion Gure-Bidek Ondarroako itzulia antolatzeari, baina elkarteak 50. urteurren honetarako ohitura berreskuratu egin du. *Vuelta a Ondarroa* bihar egingo dute, uztailaren 18an. Elkarteko hogeiren bat lagunek parte hartuko dute.

Oier Narbaiza

Txirindularitzarekin lotuta egoteko asmoz sortu zen orain dela 50 urte Gure-Bide elkarte. Lasterketak antolatu ez ezik, elgoibartarrentzat ohitura bihurtutako *Vuelta a Ondarroa*-ren prestaketa lanak ere hartu zituen bere gain. Kirola, lagunartea, turismoa eta jai-giroa uztartzeko plan ezinhobea zen. Elkarteko ki-deak eta Elgoibarko koadrila askotako gizonek parte hartzen zuten urtero-urtero.

Gure-Bide elkarteko Juanito Gorostizak akorduan dauka Ondarroako Itzulia. "Txirindularitza indartu behar genuenez, giroa sortu zen bizikletan ibiltzeko eta elkarteari izena emateko plan ona zela pentsatu genuen". Ortuoste anaiek lan handia egin zuten itzulia eta beste jarduerara batzuk prestatzeko, izan ere, bietako bat, Jose Ramon, txirindulari profesionala izan baitzen.

Jende askok zeukan bizikleta sasoi hartan, gainera Elgoibarren alokatu ere egiten zituzten. 1960an hartu zuen Gure-Bidek bere gain ekimena. Urte hartan, hogei bat txirindularik parte hartu zuten itzulian:

San Migeldik Markinara, eta handik Ondarroara; itzulera, Mutrikutik eta Debatik zehar egiten zuten, egun argiz.

Jan eta edan

Ez zen gaur egungo kirol jardueren modukoa. "Ondarroan bazkaria enkargatzen genuen", dio Gorostizak. Hara heldu aurretik, baina, bidean gelditu eta hainbat txikito jotzen zituzten, "kontrolik ez zen-eta". Partehartzaileeen artean giro bikaina izaten zen. Berriatuan, esaterako, pilotan jokatzeko zuten. Ondarroan bapote jan eta edan ondoren, kantu kantari jarduten zuten.

Orduan, auto gutxiago ibiltzen zen, baina bideko zuloekin kontu handiz ibili beharra zegoela gogoratzen du Juanitok.

Hurrengo urteetan, Ondarroako Itzuliak arrakasta handia izan zuen elgoibartarren artean. Iñaki Mujikak, esaterako, 54 bat urte dauzka, eta oso gaztea zenean gertutik ezagutu zuen ohitura hori. 60 lagun inguru elkartzen zirela gogoratzen du.





EGUN OSOKO PLANA

Ondarroako Itzulia ez da erabat desagertu. Izan ere, Elgoibarko koadrila bat 1989tik urtero-urtero elkartu da, gehienetan ekaineko azken astean, *Vuelta a Ondarroa* egiteko. Umetatik ezagututako ohitura berreskuratu nahi izan zuen Iñaki Mujikaren koadrilak. "Lehenengo urteetan hamabi bat lagun bildu izan ginen bizikleta gainean", dio.

Ohiturari urtero heldu dion koadrila bakarra da. Urtean behin egun osoko plana egiten dute. Gainera, autoz lagun gehiago joaten dira tropelaren ondoan, laguntzeko. Ahal duten artean eutsiko diote ohiturari. "Ez diogu laga, baina orain dela bi urteko argazkian zazpi lagun agertzen gara, baina lau edo bost bakarrik bizikletan", azaldu du.

"Geurea bai zikloturismoa", uste du. Goizeko hamarretan elkartzen dira Plaza Handian. Irten eta Urtian egiten dute lehen geldialdia. Tradizio bihurtu da esparrago lata ireki eta jatea. "Beti egiten dugu". Atsedenaldea hartu eta



1996ko itzuliko partaideak, Udaletxe aurrean. Ezkerretik eskumara: Angel Atristain, Jose Angel Bereziartua, Patxi Juaristi, Jose Ramon Soraluze, Iñaki Mujika, Javier Mari Arrese eta Luis Etxeberria.

San Migelera. Gogorrena pasatuta-koan, "San Migeldik jaistea gozame-na da", dio. Markinan hamarretakoa egiten dute: "Soraluzek beti enkar-gua egiten du hango taberna bate-an".

Ondarroara 13:30tan heltzen dira. Aspalditik bizi da Ondarroan Feli Azkue elgoibartarra, okina izandakoa. 80 urte-tik gorako emakume hark lokala laga-tzen die urtero, bizikletak gordetzeko eta arropa aldatzeko. "Hori guretzat txollo handia da". Batzuk hondartzara joaten dira, bainua hartzeko, baina beste batzuek nahiago izaten dute txi-kito batzuk jotzea. Bigarren talde honi gehitzen zaizkio Elgoibartik autoz joan-dako hainbat lagun. Ondoren, denek bazkaltzen dute Ondarroan, zubi ondo-ko erretegian. "Bazkaldu ondo egiten dugu, ez pasta eta entsalada!", Mujika-ren esanetan. 17:30ak aldera bueltari ekiten diote.

Euren kontura *Vuelta a Ondarroa* egin aurretik, Santiago Egunez joaten zirenean, Mutrikutik pasatzean, jaiekin bat egiten zutela gogoratzen du Iñakik. Beharbada gehiegizkoa litzateke hori gaur egun. Orain Mendaroraino jarraitzen dute, eta han zerbait hartzen dute. 19:30etarako Elgoibarren egon ohi dira bueltan.



2007ko itzuliko partaideak, Etxeberria botika zaharraren aurrean. Ezkerretik hasita: Jose Ramon Soraluze, Joseba Landaburu, Luis Etxeberria, Javier Mari Arrese, Patxi Juaristi, Jose Luis Arana eta Iñaki Mujika.



Bihar, Gure-Bideko hogeitxirindulari

Geroago, baina, arrakasta izateari laga zion ohiturak, eta galdu egin zen. Gure-Bide elkarteak *Vuelta a Ondarroa* berreskuratzea baino, gogoratzeko asmoa du 50 urte egin dituen honetan. Izan ere, bihar, hogeiren bat bazkidek parte hartuko dute itzulian. Goizeko 9:00etan irtengo dira Plaza Handitik eta eguerdi parterako, 11:30-12:00ak bitartean, bueltan egongo dira. Auto eta quad bana izango dituzte alboan, laguntza emateko. Elgoibarrera etorritakoan, ibilbidea egingo dute herriko kaleetan.

Kontuan hartu beharra dago elkarteko bazkide gehienak 40 urtetik gorakoak direla.

Horrexegatik, eta garaiak asko aldatu direlako, beste espiritu batekin egingo dute itzulia, txikiteorik gabe, parrandarik gabe. Baina, hori bai, ilusioz beterik.

Gabi
jatetxea



UZTARTZE MENUA, ARDO ZURIEKIN

2009KO UZTAILAREN 17 ETA 18AN

- **ALMEJAK TXAKOLIN ERARA**
Ardoa: Arregi txakolina (Getariako Txakolina jatorrizko deitura)
- **ESKALIBADA ESTURIOIAREKIN**
Ardoa: Jacob's Creek Chardonnay Vintage 2007 (Australia)
- **BAKAILAOAREN TRIFASIKOA**
Ardoa: Azumbre Verdejo (Rueda jatorrizko deitura)
- **ITSAS-URRABURUA ALA BASERRIKO OILASKOA PAPEKIN ETA MOJO-PICON SALTSAREKIN**
Ardoa: Bermejo Malvasia Seco 2007 (Lanzarote jatorrizko deitura)
- **KANUTILLO BETEAK LIMOI KREMAZ**
Ardoa: Cava Parxet Brut erreserba

PREZIOA: 40,00 € + BEZ
EDARIA BARNE

**Egin erreserba telefonoz
(baita San Bartolome jaietarako ere)**

Nafarroa enparantza z/g • Tel.: 943 741 230

**Pneumax enpresa aurreko aparkalekua langile-entzat da:**

“Olasoko industriagunean dagoen Pneumax enpresako aparkalekua bertako langileentzat da. Herritik Sigmara joaten den jende askok enpresa aurrean aparkatzen du autoa, eta eskertuko genuke libre lagatzea. Mila esker”. ⇒

**Idotorbe-San Pedro auzoko zelaia eta komunak zikin-zikin lagatzen ditu jendeak asteburuetan:**

“Asteburuetan herritar asko igotzen dira Idotorbe-San Pedro auzora barbakoa egitera. Hori oso ondo dago, baina ingurunea ez dute batere zaintzen. Ikatza lurrean botata lagatzen dute, eta zikinkeria mordoa uzten dute etxera joaten direnean. Gainera, jendea txakurrekin joaten da, eta solte lagatzen dituzte. Ume asko ibiltzen dira han, eta nire ustez arrisksua da. Horrez gain, jendeak edozein modutan aparkatzen du autoa, eta beste asko joan ezinda geratzen gara”.

Pedro Migel Urruzunoko etxeetan lanean dihartuten beharginek zuhaitz azpira botatzen dute ur zikina:

“Pedro Migel Urruzuno kaleko etxebizitza bateko fatxada berritzen ari dira. Langileek euren lan-tresnak uretan garbitzen dituzte, eta, ondoren, ur zikin hori zuhaitz baten ipurdira botatzen dute. Zuhaitzari porlana botatzea ez da ona. Santa Klara inguruko obretan gauza bera egin zuten, eta zuhaitza hil egin zen. Zuhaitzak eta natura apur bat zaintzeko eskatuko nieke”. ⇒



Udalak banatu dituen erosketa-poltsak ez ditugu jaso: “Gure denda, gure poza kanpaina dela-eta, Udalak erosketak egiteko poltsak banatu ditu herriko etxeetan, baina guk ez ditugu jaso. Sigman bizi gara, eta badirudi gure auzoan ez dutela banatu. Idotorbe-San Pedro auzoan ere ez omen dute jaso. Besteak baino gutxiago gara, ala? Behin banatzen hasita, etxe guztietara iritsi beharko lirakeela iruditzen zait. Helburua plastiko gutxiago erabiltzea baldin bada, zenbat eta gehiago banatu, hobe dela uste dut. Mila esker”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

III. URTEURRENA

IÑAKI CONTRERAS DE CASTRO

2006ko uztailaren 20an hil zen.

*Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte bakarrik.*

Elgoibarko kuadrila



I. URTEURRENA

ANTONIO PEDRON FERNANDEZ

2008ko uztailaren 26an hil zen, 77 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

**Udaroa, festaroa baino gehiago
(SBO: Mikel laboa Arrano Beltza)**

Ekainaren 21ean ospatu zen udako solstizioa, kristautasunak 23ra pasatu arren. Ohi zuen moduan bertakoen jaiak moldatzen zituen hobeto finkatzeko asmoz, baita lortu ere. Jaiak eta festak no-nahi, nahiz eta batzuetan zer ospatzen den ez jakin, Irungo San Martzial alardea kasu, non 1522ko ekainaren 30ean nafarren aurkako garaipena ospatzea duen helburu (berdintasunaren bidean, alarde-rik ez). 1512an Albako dukeak gidatutako armada gaztelarrak Nafarroa Garaia menpean harturik zuela, Nabarrako muga Bidasoaren bestaldean gelditu zen. Hurrengo urteetan, hainbat matxinada izan ziren Nabarrako Erreinua berreskuratzeke asmoz. Noingo batailan, 1521eko ekainaren 30ean, 5.000 nafarrek bizia galdu zuten, edota 1522ko uztailearen 19an Amaiurko gazteluaren galera izan zen.

Urtaro honek badu beste data garrantzitsu bat, 778ko abuztuaren 15a, non Karlomagoren tropek astindu galanta jasan zuten Iruña txikitu ostean. Bertan hil zen Roldan, eta oinarriak finkatu zituzten, 824an Nabarrako Erresuma sor zedin. Aurten ere egun hori gogoratuko da, *Askatasun Eguna* izenarekin, Orreagan bertan. 2012an beteko dira 500 urte bortzax Nabarrako Erresuma desagertarazi nahi zutenetik, baina hemen jarraitzen dugu, azken finean ez baikara estaturik gabeko herri bat, zantaturik jarraitzen duen estatu bat baizik.

Baditugu beste data batzuk historia egiteko, uztailearen 24tik abuztuaren 2ra Durangaldeko Izurtzan burutuko den AHTaren aurkako kanpaldia.

Presoen aldeko ekimenak, abuztuaren 1eko irteera operazioa, eta 8an hondartzetan egiten diren elkarretaratzeak. Oztupoak oztupo, "maite zaituztegu" oihukatzen jarraituko dugu.

P.D.: Ekainaren 24 zendu zen Pedro II.a Nabarrako koroaren oinordekoa.

NF ☞

Ezer ez da berdin

"Egia esan, oraindik ez dakit hogeiraino kontatzen, baina nire amak hiru zenbaki hauek gogoratzeko esan dit: bere tripan *berrehundapiku* egun eman ondoren, azaldu omen nuen burua kanpora; *ehundapiku* egun pasata ezagutu omen nituen orain nire lagun minak direnak; eta orain nire adina *milatapiku* egunekoa da. Eta laster oporrak hasiko direla, oporren ondoren beste eskola batara joango naizela, bertan lagun berriak egingo ditudala, baina lasai egoteko, nire betiko lagunak kalean ikusiko ditudala, eta bukatzeko platerekoa... Eta nik galde-tu diot ea Oihana edo Susana edo Marilu eskola berrira etorriko diren, eta irribarre egin ondoren esan dit baietz, lasai egoteko. Nik badakit irribarre hori egiten duenean txantxetan ari dela, eta horrek esan nahi du ez direla nire andereñoak izango, baina berdin dio, beste andereño pila bat ezagutzen dut nik: Amaia, Aitzi, Mariapi, Yolanda, eta

besteen izenak ere badakizkit, baita beraiek nirea ere, baina oraingoan ipurdia garbitu didatenei buruz ari naiz. Ama, kontatu berriro zenbaki piku horiena...".

Uztailearen 23an bukatuko da beste ikasturte bat Elgoibarko Haurreskolan...eta ezer ez da berdin. Ez da berdin haurtzaindegi bat eta haurreskola bat. Ez da berdin zaintzaile bat eta hezitzaile bat. Ez da berdin ikastetxeko zaintza zerbitzua eta haurreskola. Ez da berdin 2 urterekin edo 3 urterekin haurreskola utzi beharra.

Eskutitz honen bitartez, Elgoibarko Haurreskolako hezitzaileoi eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu, gure seme alaben heziketa-esperientzia konpartitzearen. Ez dakigu hemendik aurrerakoak zer ekarriko digun, baina beraien motxilak ederki bete dituzte hiru urte hauetan. Gure esker ona behin eta berriz ematea besterik ez zaigu gelditzen. *Milatapiku* eskerrik asko.

Miren Vives,
hogeitapiku gurasoren izenean ☞

OHARRA

OPORRAK HARTU DITUGU

Iritsi dira oporrak BARREnera! Hurrengo alea San Bartolome jailetan jasoko duzue **abuztuaren 23an**. Ondo pasa!

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea


Nafarroa enparantza, 2 · 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Angel Ugarteburu



Andres Alberdi

Uztai-lean hasi eta irailera bitartean izango dituk gehienontzat oporrak: “Ondo ibili!”. “Gozatu eta hartu atsedean!”. “Gorputzez eta gogoz

biziberrituta itzuli!”. “Zuek irakasleok bai opor luzeak!”. “Bai, hemen inor ez da besteren lanarekin nekatzen”. Hik ere entzun izan-go hituen horrelakoak, Andres.

Atsedenaldiaren ondoren, elkar agurtzean, betiko kontuak entzungo jituagu kale, eskailera, lantegi, eskola eta taberna txokoetan: “–Zer moduz? –Hobeto nahi be ez!” Biribilegi eta azkarregi, egia izateko. “Ondo esan beharko, txarto esanez gero barre egiten juek eta!”. Erantzun kaustikoak ere izaten dituk tartean: “Askok nahi baino hobeto!”.

Nik neuk nahiago juat etxean, senitaratean eta lagunarte batzuetan entzun izan dudana beste eder hau: “Geu txartoen bagaituk, honenbestean konforme”, edo “geu egon gaitezela txartoen”, majo bazkaldu eta gero.

“Oporrak badu propagandak erakusten ez duen beste xarma ezkutu bat”

Krisiak larri zauritzen gaituen honetan, ostera, oporra aipatzea burulat har daiteke ia. Izan ere, lanaren ondoriozko sari denean hartzen jok oporrak bere zentzu eta gustu osoa. Baina jubilatuta bizi denak bajakik oporrak baduela propagandak erakusten ez duen beste xarma ezkutu bat. Eta ez duk bilobaren karrotxo erabiltzea bakarrik.

Krisia bizi-bizi sufritzen dutenentzat nire desiorik ederrena: atsegin betea lor dezatela bakarrik zein lagun kutunarekin egingo duten kanpo zein barne ibilaldian. Agentzietan ez juek horrelakorik eskaintzen baina aukerak egon bajagozak. Krisialdiko umeak izango ahal dituk opor mota berrien gidari! Ailitez!



“Zuek irakasleok bai opor luzeak!” moduko esaldirik entzun al dudana diok? “Entzun”, diok? Ba bai, askotan entzun diat, eta *jasan* ere bai, oroimenari tira eginez gezurrik ez bainuke esango ehunka ez ezik milaka bider ere egokitu zaidala egoera xeblere hori.

Duela urte batzuk petraldu egiten ninduan, gainera, kontzientzia txar moduko bat eragiten zidaan-eta. Gaur egun, egia esan, nire ofizio honetan laster ia berrogeigarren ikasturteari ekiteko denboraldia hastear, mingostu beharrean, poztu ere egiten naik egoera horrek, pentsarazten baitit, baten batzuei ez bezala, besteren lan gutxiak niri behintzat ez didala tripako minik ematen eta ez sufrimendurik eragiten. Hor konpon besteren onarekin sufritzen dutenak!

“Zer asmakizun ederra litzatekeen minari eta gerrari opor ematea!”

Sufrimendua sufrimenduak ematen zidak, eta, oporrez ari garenez, sufritzen dutenek opor hartu ezinaz, opor labur-laburrak izanik ere. Eta sufritzen duk hemen eta han, eta sufritzen ditek hemengoek eta hangoek. Ai zer asmakizun ederra litzatekeen minari eta gerrari opor ematea! Lastima ameskeria izatea! Egun hauetan, halako beste bat gehiago telebistan: Palestinako Gazako kontuak isilik aspaldian, erakusteko haur odoldurik gabe nonbait, hara hor non hartu duen lekukoa Txinak, eta pantailak odolez blaitu zaizkiguk berriro ere, Angel: espaloian eserita burutik behera odola dariola mutiko bat, jario berberaz elkar besarkatzen duten bi neskatila intzirika, amama bat noragabe zoroan... Argazki gordinek oporrik ez!

Txarrena duk denok ere berehala jartzen garela horietara, ohiko-tasuna hartzen dutela gure bihotz-buruetan ere. Oporretara ez zekiat, baina zer erraz ohitzen garen geure geurekoikeriara!



Elgoibarko Udala



Merkataritza sustatzeko trial bike erakustaldia izango da

Munduko txapeldunak hartuko du parte



Herriarrak bertako dendetan erosketak egitera bultzatzeko *Gure denda, gure poza* izeneko kanpainaren baitan hainbat ekintza sustatzen dihardu Udalak. Orain arte, pankartak jarri dituzte herriko txoko esanguratsuenetan, gozokiak eta bereizgarriak banatu dituzte ekimen honetan parte hartzen duten dendetan, eta behin eta berriz erabili daitezkeen 4.500 poltsa banatu dituzte. Orain trial bike erakusketa antolatu du biharko 12:00etan hasiko da, Plaza Handian.

Oztopoei aurre egiteko prest

Munduko hiru onenak etorriko dira Elgoibarrera erakustaldia egitera: senior mailako Benito Ros, kadete mailako Abel Mustieles, eta junior mailako Jon Areitio.

Benito Rosek azaldu du ikuskizuna zelakoa izango den: "Oztopoak edukiko dituen ibilbide bat jarriko dugu plazan, eta zirkuitua egingo dugu bizikletekin".

Partehartzaileek eurek jarriko dituzten oztopoez gain, eguraldiak jar ditzakeenei ere aurre egiteko prest agertu da Ros: "Euria egiten badu ere, guk erakustaldia egingo dugu".

Putreak dabilzala salatu dute Azkarate inguruko baserritarrek

Azken hilabeteotan putreek baserritarren lana arriskuan jarri dutela salatu dute Azkarate inguruko hainbat baserritarrek. Ganadua umea egiteko dagoenean edo ardiei ilea moztzen dietenean putreen presentzia nabaria dela adierazi dute. "Azkenekoz 30 putre inguru gerturatu ziren gure baserri ingurura, eta sekulako hegazti beldurgarriak dira". Baserritarrek euren lanari eusteko zailtasunak dituzte, eta gai horrekin kezkatuta daude. Norbaitek egoera horri irtenbidea emateko eskatu dute.

Gizarte laguntzen eskaeren igoerak eztabaida piztu du alderdien artean

Ongizate Sailean murrizketak egin direla gezurtatu du alkateak, PPK eta ezker abertzaleak eginiko kritikei erantzunez. Gizarte laguntzen eskaerak asko hazi dira, eta horrek eztabaida piztu du alderdi politikoen artean.

Ongizate Sailak emandako datuen arabera, 2009ko lehen sei hilekoan 114 eskari izan dituzte, eta 2008an 86 eduki zituzten urte osoan. Igoera horren ondorioz neurriak hartu behar izan dituzte, eta urte hasierako aurrekontua handitu egin dutela azaldu dute arduradunek. 2009an 105.729 euro zeuden gizarte laguntzetarako, eta Eusko Jauriaritzak emandako 30.000 euro gehitu dizkio te kantitate horri. Hala ere, dagoeneko gehiena gastatu dutela esan dute, eta irailetik abendura bitartean beste 30.000 euro gehiago lortzeko ahalegina egingo dutela adierazi dute. Alfredo Etxeberria alkateak esandakoaren arabera, PPKo zinegotziak bazeukan informazio horren berri, eta ez du ulertzen zergatik egin dion kritika Udalaren jokabideari.

Horrekin batera, Ongizate Sailak ematen diren laguntzen %62,8 bertako bizilagunentzat direla argitu nahi izan du alkateak, eta %37 kanpotarrentzat.

PP eta ezker abertzalea kezkatuta

Krisi egoera dela-eta Udalak izan duen jarrerarekin kezkatuta daude PP eta ezker abertzalea. Bi alderdie-tako ordezkariak, Ongizate Sailak diru murrizketak izan dituela kritikatu dute.

Francisco Javier Nuñez PPko zinegotziak Udaleko agintarien sentsibilitate falta nabarmendu du. Bere ustez, krisi garaian ez lirakeke familia behartsuentzako diru-laguntzak murriztu behar. Alderdi Popularreko zinegotziak badaki Udalak ere jasan duela krisiaren eragina, baina bere iritziz, aurrekontuak moldatu eta dirua beste leku batzuetatik kendu beharko litzateke. Nuñez-en esanetan, proiektuetan eta ikerketetan hainbeste diru gastatu beharrean, benetako beharrak dituztenei lagundu behar zaie. PPKo arduradunak erabaki hori hobeto aztertzeke eskatu nahi dio Udalari.

Ezker abertzaleko kideek ere Udalak hartutako erabakia kritikatu dute. Iñaki Odriozolaren ustez, diru asko gastatu du Udalak herria "apaintzen", baina behartsuei emateko dirurik gabe geratu da. Bere esanetan, aurrekontuak moldatu daitezke, eta dirua sail batetik bestera pasa, baina "ezin dira laguntzak emateko zailtasunak ipini, eta are gutxiago, laguntzak moztu". Ezker abertzalekoak familientzako diru-laguntzak murriztearen kontra azaldu dira.

Izena **Izaskun eta Mari Jose Estibaritz**



Izaskun eta Mari Jose Estibaritz ahizpek Zarauzko Emakumeen Estropadetako ikurriña egin dute. Izaskunek josi egiten du eta Mari Josek bordatu. Aurten jokatu da estreinako aldiz emakumezkoen txapelketa Zarautzen, eta irabazleak jasoko duen ikurriña Elgoibartik eramango dute. Mutilen kategoriako bandera ere elgoibartarrek egiten dute lehen ediziotik, eta aurtengoa 32.a izango da. Horrez gain, Zarauzko udaletxeko bandera guztiak bi ahizpa hauek egin dituzte.

Zenbakia **242**

Obren lantalderako hamar langile kontratatzeko deialdia egin du Udalak, eta 242 lagunek eman dute izena. Orain dela urtebete kosta egiten zen horrelako lanpostuak betetzea, eta arduradunak ere harrিতuta daude. Krisiaren eragina izango ote? Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak Udalari eman dizkioten diru-laguntzei esker egingo dituzte kontratazio horiek. Kontratatuko dituzten langileek hainbat lan egin beharko dituzte sei hilabetez: guneko publikoaren zaintza eta mantenua, bide-seinaleen ardura, isurbi-deen garbiketa, kultur jardueren zaintza...

Irudia **Umeak ere saltzaile**

Krisiak ez die langileei bakarrik eragin. Azken egunotan, dendari txikiak aurkitu ditugu kalean. Etxean dauzkaten produktuak jarri dituzte salgai: panpinak, filmak eta hainbat jostailu. Gozokiak erosteko dirua behar dutela adierazi dute, eta hainbat produktu oso ondo saltzen direla azaldu dute. Joan zen astean ateratako erretratua da behekoa, eta ordurako 10 euro inguru irabazi zituzten.



Langabezia %19 hazi da urtearen lehen erdian

Inemen arabera, Elgoibarren 511 lagun zeuden lanik gabe ekainaren 30ean, urtarrilaren 1ean baino 88 pertsona gehiago. Hor-taz, %19 igo da langabezia tasa urtearen lehen erdian. Gipuzkoako langabezia tasaren batez besteko igoera %16koa izan da.

Hileko azken zapatuko feria bihar izango da

Azken zapatuko feria aurreratu egin dute uztailean, eta bihar, hilak 18, izango da. 9:00etatik aurrera Elgoibarko hainbat baserri-tako produktuak jarriko dituzte salgai Nafarroa Plazan. 11:00etan ganadudunek animaliak erakutsiko dituzte Plaza Txikian, eta eguerdi aldera arte egongo dira bertan. Giroa alaitzen trikitilari-ek jardungo dute.

Hizkuntza Eskolan matrikula egiteko epea zabalik dago

Eibarko Hizkuntza Eskola Ofizialean izena emateko epea uztailearen 24an amaituko da. Maila probak www.eoieibarheo.com web gunean egin ditzakete ikasle berriek. Informazio gehiago eskuratzeko 943 200 618 telefonora deitu daiteke.

Musika Udalekuak bertan behera geratu dira

Udaleko Kultura Sailak musika udalekuak antolatu ditu estreina-koz, baina bertan behera gelditu dira jende faltagatik. Izena emateko epea amaitu da dagoeneko, eta bi lagunek bakarrik azaldu dute parte hartzeko interesa.

Autoetako kristalak apurtu dituzte Urasandin

Joan zen domeka goizean lau autotako kristalak apurtuta azaldu ziren Urasandi auzoan. Ezezagunen helburua itxura guztien arabera, auto barruko gauzak ostea zen.

Santa Ana Jaietan denetik eta denentzako

Ermitara igotzeko arazoak direla-eta,
prozesioa Trinitateko elizan izango da aurten

Santa Ana Jaiak badatoz, eta dagoeneko dena prest dago Mendaron. Uztailaren 24tik 27ra ospatuko dituzte jaiak, eta Udalak herritar guztientzako egitaraua antolatu du. Denetik eta denentzako ekitaldiak izango dira, eta ez da aspertzeko unerik izango.

Lau eguneko egitaraua uztailaren 24an hasiko da. Haur, zahar eta gazteentzako ekitaldiak izango dira. Musika saioak, umeen eta nagusien danborrada, marmitako lehiaketa, play-back lehiaketa... Aurten Mauxitxa txarangak lagunduko dio nagusien danborradari. Herri kirolak, meza, suak eta beste hainbat ekitaldi izango dira.

Prozesioa Trinitate elizan

Santa Ana ermita inguruko lurretan luperia demasa eragin zuen euriteak martxo inguruan, eta bertaraino iristeko bidea oso kaltetuta geratu zen. Oraindik ez dute ingurunea konpondu, eta Udaleko arduradunek esandakoaren arabera, arriskutsua dago bidea. Hori dela eta, aurtengo prozesioa Garagartzako elizatik Trinitateko elizara bitartean egingo dute.



MENDARO

ALBERTO
Arraindegiaz

Telf.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55

Era guztietako orotz lanak (erreformak, sukaldeak...)

Ezenako
Arotzenixia

653 70 78 37 Mendaro

LANDA
ERRETEGIA

*Jaiak
ondo pasatu !!*

Garagarza, 32 • MENDARO
☎ 943 75 60 28

Egitaraua

SANTA ANA JAIK 2009

18 ZAPATUA

22:30 Rock kontzertua.

- TEMPESTADES
- SU TA GAR

24 BARIXAKUA

18:45 Txupinazoa.

19:00 Salbea.

Garagartzako elizan.

Ondoren, kalejira.

Bizi Poza txarangarekin.

20:30 Batuka eta aretoko dantzen erakustaldia

Goñi pilotalekuan.

24:00 Dantzaldia

DADA DJarekin.

25 ZAPATUA,

Santixo eguna

12:00 Koadrilen arteko marmitako lehiaketa.

Goñati frontoian.

14:00 Herri bazkaria.

Ondoren, koadrilen arteko jolasak.

19:00 Kalejira

KATU BURU perkusio taldearekin.

22:30 Nagusien

danborrada.

MAUXITXA txarangarekin.

24:00 Erromeria.

LISKER taldearekin.

01:30 Mendaroko Play Back lehiaketa.

Ondoren, sari banaketa.

* Egun osoan zehar puzgarriak egongo dira herriko enparantzan.

26 DOMEKA,

Santana eguna

10:30 Prozesioa.

Txistulariekin,

Garagartzako elizatik

Trinitatera.

11:00 Meza nagusia.

Ondoren, erromeria

Trikilari eta bertsolariekin.

18:00 Herri kirolak.

Gipuzkoako 2. mailako aizkora txepketako finala eta lokotx-biltze txapelketa. Goñati pilotalekuan.

19:30 Erromeria

KUPELA taldearekin, Herriko Enparantzan.

23:00 Suak.

27 ASTELEHENA

11:00 Puzgarriak

Goñati pilotalekuan.

12:00 Zezen txikiak eta pottokak

Herriko Enparantzan.

16:00 Haurrentzako puzgarriak

Goñati pilotalekuan.

19:00 Umeen

danborrada

Ondoren, jaien amaiera Bizi Poza Txarangarekin.



PAGOERROTA

iturgintza



- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)

Tel.: 943 75 60 44 - Faxa: 943 75 60 37 - Mugikorra: 659 334 323



PUB

Ondo pasa Santanak!!!

ARRATS

Zelaikoa plaza, 2. MENDARO. Tel: 943 75 50 58

Rock gaua

Tempestades:

“Gure artean jo ahal izatea nahikoa da aurrera segitzeko”

Santa Ana jaietarako motorrak berotzen hasteko, rock kontzertua izango da bihar, Herriko Enparantzan. Su Ta Gar taldeak 20. urteurreneko kontzertua eskainiko du, eta aurretik, Tempestades taldea arituko da. Enekoitz Zubiaurre (bateria), Markel Portu (Baxua eta ahotsa) eta Ekhi Unanuek (kitarra eta ahotsa) osatzen dute Tempestades. Orain dela hiru urte ekin zioten lagun artean musika jotzeari, eta taldea sortzea erabaki zuten. Zein estiloko musika egiten duten galdetuta, “jendeak entzun eta erabaki dezala”, erantzun dute. Hitzordua bihar izango da, 22:30ean.



Noiz eta nola sortu zenuten taldea?

Orain dela hiru urte hasi ginen lagunartean jotzen, eta denborarekin talde bat egiteko gogoia sortu zen. Horrela hasi ginen.

Zergatik Tempestades izena?

Egia esan, hasieran kantak konposatu egiten genituen, gure artean jo ahal izateko. Lehenengo kontzertua eskaintzea proposatu zigutenean izen hori pentsatu genuen eta ordutik gustuko dugu. Baliteke esanahi negatiboa edukitzea hitz horrek, baina nik uste dut talde baten musikak ematen diola nortasuna izenari, eta musika talde horrek egin eta konposatutakoak ematen dio esanahia. Esaterako, ACDC izena soilik esanda, ez nuen izen erakargarritzat hartuko. Baina izen hori beraien irudia eta konposatu dutenarekin uztartzen denean, erabat desberdina da.

Mendaro ikastola
Kilimon,2
Tel.: 943 756 141

MENDARO IKASTOLAKO TXOKOLOREN PARTEZ ONDO PASA JAIAKI

LEIRE JANTZI DENDA
ONDO PASA SANTA ANA JAIAKI!!!!

Azpilgoeta kalea, 24
Tel.: 943 033 629

TAXI
Kontxi Urain
MENDARO

Mobila:
607 575 728
Etxekoa:
943 755 052

Su Ta Gar: 20 urte taula gainean

Eibarko Su Ta Gar taldeak 20 urte egin ditu. 1988ko abuztuan eman zuten estreinako musika emanaldia, eta aurten ospakizun kontzertuarekin lanean ari dira herriz herri. Euskal Herriko eta Espainiako hainbat aretotan jardun ondoren, Mendarokoa izango da ospakizun bira horretako azken kontzertua. Su Ta Garren zaleek aukera ezin hobea izango dute taldearen gaurko eta aspaldiko abestiak entzuteko. Aitor Gorosabel, Xabi Bastida, Galder Arrillaga eta Igor Oiarbidek daukaten onena eskainiko dute bihar gaueko kontzertuan.



Non egiten dituzue entseguak?

Mendaroko Udalak lokal bat laga digu Musika Eskolan, eta bertan elkartzen gara.

Zein estilotako musika egiten duzue?

Inoiz ez gara saiatu gure taldea estilo konkretu batekin lotzen. Entzuten duenak erlazionatu dezala nahi duen estiloarekin.

Eta zuei zein estilotako musika gustatzen zaizue?

Gutako bakoitzak bere gustuak ditu, eta ez dira beti berdinak. Punk, pop eta rock estilotan sar daitezkeen taldeak gustatzen zaizkigu gehien Ekheri eta Markeli (Blink 182, The Goo Goo Dolls...). Enekoitzek, ordea, nahia go du heavya, baina denetik entzutera ohituta gaude. Hala ere, jotzen dugunean hirurok konposatzen dugun zerbait irteten zaigu, eta gustuko dugu denok.

Su Ta Gar taldearen aurretik joko duzue. Zer sentitzen duzue?

Denok dakigu Su Ta Gar talde handia dela Euskal Herrian, beraz pozik gaude. Hala ere, ez gara urduriago jartzen horrelako taldeekin. Azken batean, betebeharra berbera da guretzat.

Musika afizioz egiten duzue. Musikatik bizi daiteteke?

Musikatik bizitzea oso zaila da gaur egun, gutxi batzuk soilik daukate suerte hori. Musika parte garrantzitsu bat da gure bizitzetan, eta gure artean jo ahal izateak ematen diguna nahikoa arrazoi da taldearekin aurrera jarraitzeke.

Zer plan duzue aurtengo jaietarako?

Juerga eta parranda egitea.

Zer iruditzen zaizue aurtengo egitaraua?

Mendaro herri txikia da, eta egitaraua dena delakoa dela ere, ondo pasatuko dugulakoan gaude.

Noizko kaleratuko duzue zuen estreinako lana?

Bi edo hiru aste barru gure estreinako maketa kaleratuko dugu. Sei kantaz osatuta dago, eta bi eurotan jarriko dugu salgai. Norbaitek eros-teko interesa baldin badauka, deitu dezala telefono hauetara: 669947572/ 659078437. Aurrerago, akaso, tabernaren batean edo jarriko dugu salgai, baina momentuz ez dakigu ezer. Talde pobrea gara, eta ahal dugun moduan egiten ditugu gauzak.

*Mendaroko Udalak
Santana jai zoriontsuak opa dizkizue.*

Urtearen lehen sei hilekoan %19 hazi da langabezia tasa Elgoibarren.

Krisiak izan du eraginik zure oporretan?



Mari Vazquez
72 urte, etxeoandrea

Ez. Jubilatuta nago, eta nire pentsioak ez du krisiaren eraginik igarri. Gainera, nire senarra orain dela hamabost urte hil zen, eta ordutik ez naiz inora joaten oporretan. Gazte jendeari seguru gehiago eragin diola langabeziak, baina nire inguruan ez dut horrelakorik entzun.



Simone Sousa
37 urte, irakaslea

Bai, plan alternatiboa egin behar izan dugu. Beste urte batzuetan hotelean pasatu izan ditugu oporrrak, baina aurten ezin dugu horrelakorik egin. Kostaldean pasatuko ditugu egun batzuk, baina lagun batzuen etxean. Nik ez dut lanik egiten, eta egoera zaila da.



Gorka Arriaga
33 urte, toldogilea

Ez. Normalean ez naiz kanpora joaten oporretan, beraz, kasu horretan ez dut igarri krisiaren eraginik. Gainera, abuztuan egun batzuetan lan egin beharko dut. Nire inguruan kanpora joaten direnak aurten ere badoaz. Lanean igarri dugu krisia guk: lan gutxiago daukagu.



Arkaitz Allur
27 urte, irakaslea

Ez, aurten ez dut opor askorik edukiko. Egund gutxi batzuk soilik izango ditut jai, eta Espainian zehar egingo dut astebeteko bidaiatxo bat. Katalunia eta Andorra inguruan ibiliko gara. Nire inguruan ere naberitu dut jendeak bidaia motzagoak egingo dituela aurten.

I. URTEURRENA



† RUFINO SAN MARTIN ALBERDI

*Beti umoretsu, beti alai
bizi ginen elkarrekin
izan zinen bezalakoa
izateagatik
gure maitasun guztiaren jabe zara.*

Emaztea, seme-alabak, Jose Angel eta biloba Maialen

2008ko uztailaren 18an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 18, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

Gure berbak

Hiztegixa: bedarrak eta landariak (3)

Hona gaurkuan ere bedarren, landaren eta loren izen gehixago. Erderia eta euskera batua ere erabiliko dittutela adierazi nahi dot berriz, esanahixak emateko lagungarria begittantzen jatalako.

- ♦ **ERREZIL SAGAR, errezil sagarra:** “Reineta”.
- ♦ **EUKALITO, eukalitua:** “Eucalipto”.
- ♦ **GARA:** Ortuko edo soroko landaretan, erdixan ertetzen daban zurtoiña, loria eta hazixak dauden tokixa. Ilkus **Garatu**.
- ♦ **GARAGAR, garagara:** “Cebada”.
- ♦ **GARATU:** DA aditza. Landareri gara sortu. *Nabua garatu da.*
- ♦ **GARDUBERA, garduberia:** Karduen artian arruntena dan belar mota.
- ♦ **GARDULATZ, gardulatza:** Kardua, **Gardulatza** baiño leunagua.
- ♦ **GARI, garixa:** Garia.
- ♦ **GARO, garua:** Iratzea, ira, garoa. *Oin-diok bazkaldu eta garua batu gaiñera ein bihar dogu.*
- ♦ **GAZTAIÑA, gaztaiña:** “Castaño”, fruitua eta arbola.
- ♦ **GOROLDI, goroldixa:** Goroldioa. **Odoldi** aldaeria ere erabiltzen da.
- ♦ **HALTZ, haltza:** “Aliso”.
- ♦ **HARITZ AMERIKANO, haritz americana:** “Roble americano”.
- ♦ **HARITZ, haritza:** “Roble”.
- ♦ **HAZI, hazixa:** “Semilla”.
- ♦ **HIRUKUTX, hirukutxa:** Berez sortzen dan sekula-bedarra.
- ♦ **IDAR, idarra:** Ilarra.
- ♦ **IHIXA, ihixia:** “Junco”, ur asko daguan lekuetan sortzen dan landare ostro gabia.
- ♦ **IÑAUSI:** DU aditza. “Podar”.
- ♦ **INDIGAZTAIÑA, indigaztaiña:** “Castaño de Indias”.
- ♦ **INTXAUR, intxaurra:** Intxaurra, fruitua eta arbola. **Intxorra** aldaeran ere entzuten da.
- ♦ **INTXUSA, intxusia:** “Sauco”.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1973

Aste honetako erretratu zaharra Pepi Callejak ekarri digu. 1973. urtekoa da, Larraskandako ingurunean aterata dago. Lagun artean irteerak egiteko ohitura zuten argazkiko gazteek, eta egun hartan Larraskandara joan ziren. Gogora ditzagun elgoibartar horiek:

Zutik, ezkerretik eskumara: Juaristi, Arantza Garaialde, Mila Arano eta *Guti*.

Eserita, ezkerretik eskumara: Pepi Calleja, Mari Mar Rodriguez, Lucia Casquero eta Hasier Etxeberria.



ESKERTZA

TRINIDAD LETE IGARTE

2009ko uztailaren 13an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



LERUN **JATETXEA**

Ondo pasa Sanbartolomiak!



Ordutegia

Astelehenetik ostiralera

7:00etatik aurrera

Larunbatetan

8:00etatik aurrera

Igandeetan

11:00etatik aurrera

Eguneko menuak • Asteburuetan bazkari eta afariak

SANBARTOLOMEETARAKO MAHAIA ENKARGATU NAHI BADUZU DEITU!



- Wifi
- Ospakizunak
- Pintxoak enkarguz enpresetara eramaten ditugu



Tel.: 943 74 31 96 • Lerun, 6 (Netto Merkatalgunea)

Aurtengo folklore jaialdian Hego Afrika, Armenia eta Elgoibarko dantzari taldeek hartuko dute parte

Emanaldia hilaren 24an izango da, 22:30ean hasita, Olaizaga kiroldegian

Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatuta Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdia egingo dute, hilaren 24an, datorren barixakuan, 22:30ean hasita, Olaizaga kiroldegian. Armeniatik etorritako Nairi taldea eta Elgoibarko Haritz dantza taldearekin batera Hego Afrikatik etorriko den Gauteng taldea ariko da. Hasiera batean Sri Lankako Ballet Sama taldeak etorri behar zuen Elgoibarrera, baina, azken orduko aldaketa baten ondorioz, armeniarrek parte hartuko dute jaialdian.

Hego Afrikako Errepublikan kultura mordo bat daude. Denen artean musika eta arte aberatsa osatzen dute. Gautengeko probintziatik datorren dantza taldea 35 gaztek osatzen dute, eta euren kultura zaintzeko ahaleginak egiten dituzte. Tswanarren eta zuluen dantza eta musika indigenak eta Venda herrikoen tradizioak erakutsiko ditu Gauteng taldeak. Apaindura distiratsu eta koloretsuak eta larruzko jantziak soinean dituztela, euren kultura erakutsiko dute.

Kaukasoko folklorea

Nairi taldea Armeniako Errepublikatik etorriko da Elgoibarrera. Kaukasoko hegoaldean kokatutako herrialde menditsuaren kultura ondare aberatsa erakutsiko du Olaizaga kiroldegian. Nairi folklore-taldea 1978 urtean sortu zuten, eta harrezkero dantzari belaunaldi berriak sartu dira taldean.

Hainbat herrialdetako jaialdietan hartu du parte taldeak, eta, besteak beste, Irakeko Nazioarteko Jaialdian saria jaso zuen. Errepertorioan dantza folklorikoak dituzte, eta zuzeneko musikarekin laguntzen dute.

Arabako eta Lapurdiko dantzak

Euskal Herriko dantzak erakusteko ardura edukiko du Haritz dantza taldeak. Bi zati izango du euren emanaldiak: lehenengoan, Arabako hainbat herritako dantzak egingo dituzte; bigarrenean, Lapurdiko dantzak eskainiko dituzte. Betti Betteluk irakatsi zizkien pausoak elgoibartarrei.



Hego Afrika



Armenia



Euskal Herria



ORGANIZADORES
S.COOP
BUKATU.

OLASO Poligono Industrial - Olaso kale, 6
68 66a - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htt: www.bukatu.es



CORDON
VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kango eta barneko estaldura
Zolak ezartzeak
Larruzko egar, aluminio, PVC,
Pintua onaketa

San Roke, 7 behean
Pel. Olaso - Olaso kalea, 10 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 570

grupo
TRINITY

Jon Angulo eta Javier San Andres: “Golfa probatzen duenak errepikatu egiten du”



Jon Angulo

Orain dela bi urte hasi zen Jon Angulo golfean, eta dagoeneko hainbat sari eskuratu ditu. Javier San Andresekin lortu du azkena: San Prudentzio txapelketan binakako txapeldunak izan dira. Denbora gutxi daramate, baina ederki moldatzen dira.

Angulok 27 urte ditu, eta betidanik futbolearen jokatu izan du. Aitak golfean jokatzen du, eta probatzeko esan zion. Horrelaxe hasi zen, eta futbola laga zuen. Arabako Izki Golf Klubeko bazkidea da, eta ia asteburu guztietan joaten da golfean aritzera.

Javierrek, berriz, 41 urte ditu, eta betidanik gustatu izan zaio golfa. Hala ere, hemen inguruan ez dago kirol hori praktikatzeko erraztasunik, eta orain dela gutxira arte ez du jokatzen hasteko aukerarik izan. Oñatiko Golf Eskolako bazkide da, eta bertan praktikatzen du, batez ere.

Biak ere oso pozik daude, denbora laburrean lortutako emaitzekin: “Bizitza osoa daramat bizikletan, eta erropa zikinak besterik ez ditut eraman etxera”, azaldu du Ja-

vierrek, eta golfean jokatzen duenetik sari txiki pila bat lortu ditu. Jon Angulok ere lau sari garrantzitsu eskuratu ditu, eta beste hainbat txiki ere eraman ditu etxera.

Teknika eta kontzentrazioa

Askok esan ohi dute golfa ez dela kirola, baina bi elgoibartar hauek ez daude ados hori diotenenekin. “Lagun bartzurekin joan nintzen jokatzerara, eta laugarren zulorako laga egin zuten”, esan du Angulok. Kilometro asko egin behar dira berdegunean, “eta hori neketsua da”, adierazi du Javierrek. Hala ere, bien esanetan, edonork praktikatzeko moduko kirola da: “Ez da ezaugarri fisiko konkreturik behar, teknika eta kontzentrazioa indarra baino garrantzitsuagoak dira”, gaztearen arabera. Javierrek, ordea, gizonak zein neskek praktikatzeko moduko kirola dela nabarmendu du. Bere ustez, neskak ez dira gizonak bezain konpetitiboak, eta horrek kontzentrazioari eusten laguntzen dio.

Edonoren eskura

Golfa eliteko kirola dela esaten da, hau da, garestia dela eta ez dagoela edonoren eskura. Elgoibartarrak ez datoz horrekin bat: “Eskiatzea askoz garestiagoa da, eta, gaur egun, jende gehiena joaten da eskiatzera”, esan dute. Golfa praktikatzeko makilak edozein bizikleta baino merkeagoak direla azaldu dute. Hala ere, arau asko daude golfean jokatzeke. Berdegunean ezin da hitz egin, ezin da praka bakeroekin sartu eta kamisetak lepokoa eduki behar du. “Telebistatan beste itxura bat ematen du, baina ez da horrenbestera”, azaldu dute.

Elgoibarko jende gutxi dabil golfean, izan ere, ez baitago erraztasunik hemen inguruan golfean jokatzeke. Angulok egin du eskaera: “Zelai bat eskatuko nuke, apur bat prestatu, noizean behin belarra moztu eta golfean jokatzeke moldatu”. Herritarrak animatu nahi ditu golfean jokatzeke, nahiz eta kirol erraza ez izan: “Probatzen duenak, errepikatu egiten du”.



Javier San Andres

Elgoibarko EGS eta Debako Ladakh, futbol 7ko finalistak

Gaur jokatuko dute partida 20:00etan, Mintxetan

Amaitzear da futbol 7ko txapelketa. Gaur bertan jokatuiko dute finala Elgoibarko EGS eta Debako Ladakh taldeek, 20:00etan, Mintxetan. Baina aurrez, 19:00etan, hirugarren eta laugarren postua erabakiko duen norgehiagoka jokatuiko dute beste bi talde elgoibartarrek: Smackdown eta Raketxek.

Martitzenean jokatu zituzten Eibar-ko Unben finalistak zeintzuk izango ziren erabakitzekeo partidak. EGS eta Smackdown izan ziren lehenak jokatzen, eta 4-3 emaitzarekin irabazki zuten lehenak. Bigarren partidatan, Raketxek 1-9 galdu zuen Ladakh taldearen aurka.

Faboritoak debarrak

Faborittoa talde debarra da. Izan ere orain arte jokatuiko sei partidetatik bakar bat ere ez du galdu Ladakh-



hek. Gainera, partidako gol gehien sartu duen taldea da: martitzeneko norgehiagokan bederatzi gol sartu zizkion Raketxeri.

Txapelketan 17 taldek hartu dute parte, eta horietatik zortzi elgoibartarrak izan dira. Iazko txapelaldun Buztan Gorri aurten final laurdenetan kanporatuta geratu da, Raketxeren aurka 5-2 emaitzarekin galduta.

Iker Txurrukak Gipuzkoako lau t'erdiko txapelketa irabazi du Eskoriatzan

Aiastia-San Migel auzoko Iker Txurruka Gipuzkoako lau t'erdiko txapelalduna da. Joan den asteburuan Eskoriatzan jokatu zuen finala Epelderren aurka, eta 22-9 emaitzarekin garaitu zuen. Bi pilotariak Azkoitiko klubeko kideak dira, eta ondo ezagutzen dute elkar, baina elgoibartarrak gehiago dela erakutsi zuen.

Ez du oso denboraldi ona eduki Txurrukak, eta txapela lortzean, orain arte gazia izandakoa, gozo bihurtu du. Orain Getariako Binakako Txapelketa dauka aurrez aurre. Azkoitiko Anduezarekin osatuko du bikotea, eta oraindik finalerako asko falta bada ere, maila ona emateko asmoa dauka elgoibartarrak.



Esku pilotako Sigma txapelketako finalerdiak

Sigmako esku Pilota Txapelketa aurrera doa, eta astelehenean eta martitzenean jokatuiko dituzte finalerdiak, 19:00etan. Honako hauek sailkatu dira: alebinetan Loidik Idigorasen aurka jokatuiko du, eta de la Aradak Larrerren aurka; infantilen mailan Amesti Gurrutxagaren aurka lehiatuiko da, eta Salegi Kortaberriaren aurka; bigarren mailan Kode II eta Txurruka Konde I eta Agirresarobe bikotearen aurka ariko dira, eta Agirrebeña eta Beñat Agirresarobe eta Kevinen kontra; azkenik, lehen mailan, Berazak eta Egañak osatutako bikoteak Karmel eta Gerrika bikotearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak, eta Agirrebeña II.ak eta Lizarralde Kepa eta Portu edukiko dituzte aurrez aurre.

Finalerdi horietan erabakiko da, Santiago Egunean, hilaren 25ean, jokatuiko den final handian zeintzuk egongo diren. 11:00etan jokatuiko dituzte finalak, eta ostean luntxa egingo dute.

Gernikatik Lagara irteera egingo dute bihar

Morkaikok Gernikatik Lagara irteera antolatu du biharko, hilaren 18rako. bi zati edukiko ditu ibilbideak: Gernikatik Kanalara lehena, eta Kanalatik Lagako hondarztara bigarrena. Lehenengo zatian aldaketa bat egin dute, horrela, Kortezubitik zuzenean Arteagako gaztelura joan beharrean, Agustin Ibarrolaren Omako baso margotura eta Santimamiñeko kobetatik igarotzen den Ereñozar tontorrera igoko dira. Guztira 35 kilometroko ibilbidea izango da, baina mozteko aukera dago.

Irteera 8:00etan egingo dute Plaza Handitik, eta 21:00etarako Elgoibarrera itzulliko dira.

LANA

ESKAERA

• Injeneri teknikoak DBH eta Batxilerreko fisika, kimika, matematika eta marrazketako errepasoko klase partikularrak ematen ditut Eibarren. (Inigo)

☎ 692 596 157

• Emakumea behar da iraletik aurrera 8:15etik 9:30era umeak zaintzeko eta etxeko lanetarako.

☎ 600 466 573

• Emakumea, etxeak eta garbitzen edo haurrak eta nagusiak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 628 014 327

• Emakumea, etxeak garbitzeko prest. Interna, externa edo orduka. ☎ 699 813 826

• Neska, zerbitzari lanetarako, garbiketara lanetarako eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ 617 056 828

• Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Arratsaldez.

☎ 943 743 251

• Frantseseko eta ingeleseko klase partikularrak, maila guztietan. Haur eta nagusiak. ☎ 688 683 274

• Gizonezkoa edozein lanetarako prest. Orduka.

☎ 669 285 475

ESKAINITZA

• Neska behar da kafetegian lan egiteko. Euskaraz badaki, hobeto. Goizez deitu. (Ainara edo Rafagatik galdetu). ☎ 943 741 416

• Sukaldeko laguntzailea eta zerbitzaria behar dira.

☎ 943 743 196

• Sukalderako laguntzailea behar da, esperientzia-rekin.

☎ 943 121 262

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

• Buhardilla saltzen da Altzolan. Prezio onean 42.000 euro.

☎ 625 708 042

ALOKAIRUA

• Alokatzeko etxebizitza bat bilatzen dugu Elgoibar edo inguruko herrietan.

☎ 677 023 673

• Ikasleentzako bi logela alokatzen dira Gasteizen. Erdigunean.

☎ 689 789 793

• Santa Polan (Alacant) apartamentua alokatzen da. Udako hilabeteetan.

☎ 620 652 083

• Benidormen etxebizitza alokagai. Erosoa, zentrikoa eta hondartzako 2. lerroan. Prezio onean.

☎ 943 740 628

MOTORRAK

• Opel Vectra 5 atekoa salgai, 2.2TDI Elegance, 96.000km, 2003koa, aire-girogailua eta telefonoarekin.

☎ 650 409 429

BESTELAKOAK

• Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegainen, geltoki parean), Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 metro koadro, bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta trasteroa. Garajea

☎ 659 381 317

• Arroren konponketak egiten dira. Ekonomikoa. Etxera joango nintzateke jasotzera eta entregatzera

☎ 678 117 022

• Sukaldeko mahaia, mikrouhin labea eta hozkailu bat beharko nituzke. Etxera joango ginateteke bila.

☎ 690 701 118

• Erosketa karroa nahi gabe aldatu egin dut Eroskin. Mediki errezeta asko neuzkan bertan, eta berreskuratu nahiko nuke.

☎ 943 740 385

• Gasoilezko berogailua saltzen da.

☎ 943 743 505

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



TXIKI EGUNEKO MENUA

- ➔ URDAIAZPIKOA
- ➔ ENTSALADA MISTOA
- ➔ MARMITAKOA
- ➔ ESKALOPEA EDO OILASKOA
- ➔ ETXEKO POSTREAK
- ➔ SAGARDOA, URA, COCA-COLA ETA URTEKO ARDOA

PREZIOA: 25€ BEZ BARNE

TEL.: 943 748 531



• Zorionak, **Goizeder**, abuztuaren 4an 7 urte beteko dituzulako. Muxu guraoen eta Eiderren partez.



• Zorionak, **gure printzesa**, abuztuaren 5 urte beteko dituzulako. Muxu familia eta Nahieren partez.



• Zorionak, **Mikel**, 12 urte bete dituzulako. Ondo pasa eta muxu familiaren partez. Bereziki, Aritzek.



• Zorionak, **pototo bikia**, 28an urtetxo bat egingo duzulako. Familiaren partez, bereziki aitak eta amak.



• Zorionak, **Aritz**, hilaren 5ean 6 urte egin zenituelako. Etxekoek partez.



• Zorionak, **Hodei**, eguaztenean 3 urte bete zenituelako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Inar**, zuren bosgarren urtebetetzean. Familia osoaren partez, bereziki, Oihanaren partez.



• Zorionak, **Ane**, abuztuaren 8an 7 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etxekoek partez.



• Zorionak, **Xabier**, 13an 8 urte bete dituzulako. Familiakoek partez eta bereziki Beñaten partez.



• Zorionak, **pirata!** Bixar kandelak emendatzeko prest? Txokomarrubizko bi muxu zureztat!



• Zorionak, **Lalene**, zure bigarren urtebetetzean, etxekoak eta batez ere Haitzarten partez.




• Zorionak **Ifigo!** Bixar 24 urte egiten dituzu, baina ezin dugu zurekin ospatu. Bi patxo arreben partez.



• Zorionak, **Ibon**, datorren astean beteko duzun zazpigarren urtebetetzean. Muxuak etxekoek partez.



• Zein den nork daki? 27an 5 urte egingo dituen? Zorionak, **Maddi**. Mikel, Iker, Ander, Ane eta etxekoak.



• Zorionak hire urtebetetzean, Aitor, antzerki taldekoek partez. Bizitzako eskenatokia ikusiko gaittuko.




• Zorionak, **Intza!** Hilaren 30ean 2 urte! Muxu potolo bat familiakoek eta bereziki Malen eta Naiaren partez.



• Zorionak, **Juanito**, edarra zagan kafia! BARRENeke lantaldia muxu potolo bat. Segi holakua izaten!




• Zorionak, **printzesa!** Aurtentzen ikaragarri egon zara! Segi horrela! Muxu bat! Bereziki, aittak eta amamak.



• Zorionak, **biketel** Azkenean heldu da zuen eguna. On-ondo pasa eta zoriontsu izan. Koadrilaokak.




• Zorionak, **bikote**, zapatuan oso ondo pasa genuen, zuen ezkontza egunean. Lucia, Luis eta Milaren partez.



• Zorionak **Paula eta Markel!** Astebukaeran zuen lehen urtebetzea delako. Muxu asko familia eta lagunaren partez.



• Zorionak, **Urtzi eta Haizea**, uztailaren 29an hiru urte egingo dituzuelako. Amamaren eta familiaren partez muxu handi bat. Ondo pasa!



• Zorionak **Nerea eta Aitor!** Iritsi da danok espero gendun eguna. Bixar dantza edarrak bota bihar dittugu zuen ezkontzan. Zuen kuadrilla eta familia.



• Zorionak **Luken eta amatxo!** Hilaren 31n eta abuztuaren 1ean, urteak betetzen dituzuelako. Ondo pasa familiaren partez.

QHABRA

Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza edo handiagoa: 5 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARRENeke bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIAK

UZTAILA

19 domeka **FOTERO**
25 zapatua **IBARRENEA**
26 domeka **BOLINTXO**
31 barixakua **EIZAGIRRE**

ABUZTUA

2 domeka **IBARRENEA**
9 domeka **BOLINTXO**
15 zapatua **IBARRENEA**
16 domeka **FOTERO**
23 domeka **EIZAGIRRE**
24 astelehena **FOTERO**
30 domeka **EIZAGIRRE**

IRAILA

6 domeka **FOTERO**

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.neten



18 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria

Eguerdi aldera arte baserrietako produktuak egongo dira salgai Nafarroa Plazan. Ganadudunek animaliak jarriko dituzte salga Plaza Txikian. Trikitilariak alaituko dute giroa.

Kirola

12:00 Trial Bike erakustaldia

Udal kirol patronatuak antolatuta, trial bike erakustaldia izango da Plaza Handian.

19 domeka

Musika

10:15 Debako Musika Banda

Kalejira egingo dute herriko kaleetan zehar.

12:30 Debako Musika Banda

Kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian.

22 eguztena

Madalena Eguna

11:00 Meza

Madalako elizan.

18:30 DJ Imanol

Madalako parkean.

22:30 Azulquillas talde

akrobata

Grabitateari desafio egingo diote bi neska kubatarrek.

24 barixakua

Musika

22:30 Folklore jaialdia

Haritz dantza taldeak antolatuta, Olaizaga kiroledegian.

25 zapatua

Sargoateko erromeria

11:00 Meza nagusia

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute. Trikitilari eta bertsolarien saioa izango da, eta ardi txakurren erakustaldia antzarekin.

FARMAZIAK

UZTAILA

17 Garitaonandia-Bidasolo
18 Etxeberria (Santa Ana)
19 Etxeberria (Santa Ana)
20 Fernandez
21 Garitaonandia-Bidasolo
22 Zabaleta
23 Etxeberria (Santa Ana)
24 Ibañez
25 Garitaonandia-Bidasolo
26 Garitaonandia-Bidasolo
27 Etxeberria (Santa Ana)
28 Fernandez
29 Garitaonandia-Bidasolo
30 Zabaleta
31 Zabaleta

3 Garitaonandia-Bidasolo
4 Etxeberria (Errosario)
5 Fernandez
6 Garitaonandia-Bidasolo
7 Zabaleta
8 Etxeberria (Errosario)
9 Etxeberria (Errosario)
10 Fernandez
11 Garitaonandia-Bidasolo
12 Etxeberria (Errosario)
13 Fernandez
14 Garitaonandia-Bidasolo
15 Zabaleta

*Goizez Garitaonandia-Bidasolo

16 Zabaleta
17 Etxeberria (Errosario)
18 Ibañez
19 Yudego
20 Etxeberria (Errosario)
21 Ibañez

22 Yudego
23 Yudego
24 Zabaleta
25 Etxeberria (Errosario)
26 Ibañez
27 Yudego
28 Etxeberria (Errosario)
29 Fernandez
*Goizez Yudego
30 Fernandez
31 Yudego

IRAILA

1 Zabaleta
2 Etxeberria (Errosario)
3 Ibañez
4 Yudego
5 Etxeberria (Santa Ana)
6 Etxeberria (Santa Ana)

ABUZTUA

1 Fernandez
*Goizez Etxeberria (Errosario)
2 Fernandez

Emanaldi
guztiak
Plaza
Handian,
22:30ean

«Los seis signos
de la luz»

17, barixakua

«Sukalde kontuak»

18, zapatua

«Leones por
corderos»

25, zapatua

«Madagascar2»

26, domeka

«El hijo del mal»

30, eguena

«Monstruoso»

31, barixakua

«La momia, la
tumba del
emperador
dragon»

1, zapatua



ABUZTUAK 2, SANTUMOTZ EGUNA

11:00 Meza

Santumotz lautadan

Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

Jarraian, Mañukorta eta Zeberio bertsolarien saioa

12:30 Herri kirolak

Goikoetxe harrijasotzailearen erakustaldia.

Tarteka, Laja II eta Luburdixo trikitilariak alaituko dute giroa

14:30 Bazkaria Aubixa barnetegian

Izena emateko 943 741 909 telefonora deitu daiteke.

Ondoren, bertsolarien saioa.



ERMUARAN- SALLOBENTEKO JAIK

ABUZTUAK 7, BARIKAKUA

19:00 Kanpai jotzea eta txapliguekin jaien hasiera

19:30 errosarioa eta meza

Jarraian, bakailao jana

Auzoko aitiba-amamei eskainita, bereziki, Peñagarikano eta Irazu bertsolariekin.

23:00 Bolo saioa

Ondoren, erromeria

Epelde eta Lutxurdixorekin.

ABUZTUAK 8, ZAPATUA

18:00 Arraza libreko artzai txakurren erakustaldia

23:00 Bolo saioa

Ondoren, erromeria

Astiazaran anaiekin

ABUZTUAK 9, DOMEKA

11:00 Meza

12:00 Anaiarteko bolo saioa

14:00 Anaiarteko bazkaria

17:00 Herri kirolak

Ondoren, Gorixoren zezenak

22:00 Bolo saioa

Ondoren, erromeria

Baltzola anaiekin

ABUZTUAK 10, ASTELEHENA

SAN LORENTZO EGUNA

11:00 Meza Nagusia

12:00 Pilota partidak

17:00 Haurrentzako jolasak

Gorriti eta bere abereak.

Ondoren, txokolate jana.

20:00 Emakumeen bolo txapelketa

22:00 Bolo saioa

Ondoren, erromeria

Larreategi anaiekin

AZKUE * SAN ROKE AUZOKO JAIK

ABUZTUAK 15, ZAPATUA

SAN ROKE BEZPERA

17:00 Jaien hasiera

Kanpai jotzea, txapliguak eta txupinazoa.

20:00 Errosario santua

20:30 Bertso afaria

Aitor Sarriegi eta Jokin Solozabal bertsolariekin. Tarteka, Jon Ostolaza eta Rakel Pujanaren saioak.

ABUZTUAK 16, DOMEKA

SAN ROKE EGUNA

8:00 Txapliguak eta txupinazoa

11:30 Meza Nagusia

San Rokeko ermitan.

Jarraian, HARITZ EUSKAL DANTZA taldearen saioa.

Ondoren, Txinga txapelketa

18:00 Umeentzako jolasak

Jarraian, txokolate jana

Ondoren, zezentxoak eta poniak

22:30 Erromeria

Baltzola anaiekin.

00:00 Bolo txapelketa.

Sariak:

1. 90 euro, garaikurra eta txapela.
2. 60 euro
3. 50 euro
4. 30 euro
5. Bi cava botila

ABUZTUAK 17, ASTELEHENA

SAN ROKE TXIKI EGUNA

8:00 Txapliguak

11:30 Bailarako hildakoen aldeko meza

13:00 Bertsolariak

Mañukorta eta Zeberio bertsolariekin, eta Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak lagunduta.

14:00 Anaiarteko bazkaria

Ansorregi eta Larrañagak alaituta.

18:00 Herri kirolak

Jon Redondo eta Fausto II. aizkolariek eta Imanol Goikoetxe hari jasotzailea.

Ondoren, zezentxoak eta poniak

22:30 Erromeria.

Ansorregi eta Larrañagarekin.

01:00 Zozketa.

1. Janariz eta edariz beteriko karretila
2. Kafetera bat



herritik kanpo



danele sarriugarte

Danele Sarriugarte elgoibartarra itzulpengintza eta interpretazioa ikasten ari da, eta Erasmus bekarekin Alemanian egin du aurtengo ikasturtea, Leipzig hirian. Hiri handia da Leipzig, eta egunerokotasuna Unibertsitatearekin lotuta dago. Lantzean behin, herrimina sentitu badu ere, familia eta lagunen bisita jaso du, eta bera ere etorri izan da herrira.

“Karrerako bigarren hizkuntza da alemana, eta hobetzera etorri naiz”



Bachen monumentua Leipzigen.

Alemanian bizi zara. Noiztik eta noiz arte?

Irail erdialdean etorri nintzen eta uztail amaierara arte gelditzen naiz. 20an itzultzen naiz Elgoibarrera. Leipzigen bizi naiz, Alemania ekialdean.

Erasmus bekarekin joan zara, zer ikasten duzu?

Bai, Erasmus bekarekin etorri nintzen. Itzulpengintza eta interpretazioa ikasten dut.

Zergatik erabaki zenuen bekarekin Alemaniara joatea?

Karrerako nire bigarren hizkuntza da alemana, eta ingelesean baino askoz maila txarragoa neukanez, hona etorri nintzen.

Zer da Alemaniatik gehien gustatzen zaizuna?

Nire hiria oso lasaia da, ez daude auto asko, jendea bizikletan edo tranbian ibiltzen da, eta hori asko gustatzen zait. Parke pilo bat dauzka. Hemen, hiri gehienak oso berdeak dira. Gainera, bidaitzea nahiko merkea da, eta trenean bidaiatzeko eskaintza asko eta erraztasunak daude. Etxebizitari buruz daukaten filosofia ere asko gustatzen zait: Gobernua pisuak alokatzeko erraztasun handiagoak ematen ditu, eta gazteak, beraz, gehienetan etxetik kanpo bizi ahal izaten dira. Tabernetako giroa ere atsegin dut: ezin da erre, eta musika ere gustuko dut.

Eta gutxien?

Janaria eta klima esango nuke direla alde txarrenak: oro har esanda, gauzak egiteko modua ezberdina dela han eta hemen, eta ohitzeko denbora pixka bat behar da.

Elgoibarrekin inolako antzik badauka?

Ez nuke esango, Leipzig handiagoa da, eta gehienbat ikasle hiria da, ia dena Unibertsitatearekin lotuta dago.

Herriminik badaukazu?

Oro har, oso pozik egon naiz, baina noizean behin, normala denez, hango gauzetaz akordutzen naiz. Hala ere, familia eta lagunak bisitatu naute, eta ni joan den astean egon nintzen Elgoibarren, egun batzuk pasatzen.

Atzerrira joan zaren lehen aldia da? Berrito norabait joateko asmorik bai?

Lehenengo aldia da hainbeste denbora egon naizena, ikastolarekin Ingalaterrara joan ginen, baina bi astez bakarrik. Orain, itzultzen naizenean, Eskoziara joango naiz hilabetetxo baterako, eta laugarren maila edo praktikak atzerrian egiteko beste bekaren bat eskatzea pentsatuta daukat.

Alemanian integratzeko inolako arazorik eduki duzu?

Ez gehiegi. Hasieran hizkuntza zen oztopo, baina hori nahiko bizkor hobetzen da. Erasmus bekarekin etorritako ikasle piloak daude hemen, eta ez da zaila integratzea. *Papeleo* kontuekin eduki ditut, agian, arazo gehien. Baina, egia esan, gehiena oso erraza izan da.

OLASO TABERNA-JATETXEA

Abuztuko lehen eta laugarren asteetan irekita.
Deitu San Bartolome Jaietako
erreserba egiteko.

Olaso Industrialdea, 15 · Tel. 943 74 31 85 - 636 01 57 07


LA BODEGA ERRETEGIA

Pedro Muguruza, 22
Tel.: 943 742 500
943 744 008
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ERRETEGIA SAN BARTOLOME
JAIETAN IREKITA EGONGO
DELA GOGORARAZI
NAHI DUGU.
FESTETAN, BETIKO EGUNEKO
MENUARI, BOST MENU
BEREZIEI ETA KARTARI
EUTSIKO DIEGU.

Sargoateko erronomia

UZTAILAK 25, ZAPATUA



11:00 Meza.

12:00 Salda eta txorizoa.

12:30 Bertsolariak eta trikitilariak.

13:00 Ardi txakurren erakustaldia
antzarekin.



ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XXIII. FOLKLORE JAIALDIA



Armenia



Hego Afrika



Euskal Herria

Uztailaren 24an, ostirala, 22:30ean - Olaizaga Kiroldegian



HILEKO AZKEN LARUNBATEKO FERIA

UZTAILAREN 18AN

**KONTSUMITU
BASERRIKO
PRODUKTUAK**

- Ganadu feria
- Trikitilariak
- ...



Gure denda gure poza !!